

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5557

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 3koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez garapenerako lankidetzaren kargura 2020ko laguntzak ematen baitira, ekintza humanitarioko proiektuen lerroko ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuak garapenerako lankidetzaren kargura ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen ditu, eta jarduera mota bi bereizten. Batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, krisi humanitarioen eraginpeko pertsonen babesean zentratuak, eta, bestetik, ekintza humanitarioko estrategiak, epe ertain eta luzerako esku-hartzeak direnak, zeinek, aipatutako babes-jardueraz gain, barne hartzen baitituzte erakunde humanitarioak indartzeko eta euskal herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2020ko otsailaren 26ko Ebazpenaren bidez (2020ko martxoaren 10eko EHAA, 48. zk.), 2020ko ekitaldiko deialdia egin zen garapenerako lankidetzaren kargura ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak emateko.

Halaber, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2020ko ekainaren 4ko Ebazpenaren bidez (2020ko ekainaren 17ko EHAA, 118. zk.) garapenerako lankidetzaren kargura ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak emateko 2020ko ekitaldirako bideratutako zuzkidura ekonomikoaren zenbatekoa emendatu zen.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko Zerbitzuak analisi teknikoa eta laguntza-eskabideen balorazioa egin eta gero, eta deialdiaren ebazpenaren 4. artikuluan horretarako izendatutako balorazio-batzordeak egindako laguntzak emateko proposamena ikusita,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea ebazpen honen I. eranskinean zehazten den erakundearen uko-egitea.

Bigarrena.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2020ko otsailaren 26ko Ebazpenaren bidez iragarritako laguntza esleitzea II. eranskinean jasotzen den erakundeari; bertan zehazten dira zenbatekoa eta baldintzak.

Hirugarrena.– Laguntzak ukatzea ebazpen honen III. eranskinean zehazten diren erakundeei, funtsak agortzeagatik.

Laugarrena.– Kanpo uztea IV. eranskinean zehazten diren erakundeek aurkeztutako eskabi-deak, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Bosgarrena.– Agindua ematea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsio ezarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsioa aurkezten denetik, hiru hilabete pasatzen badira ebaz-

2020ko abenduaren 28a, astelehena

penik eman gabe, errekurtsua ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 3a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2020ko abenduaren 28a, astelehena

I. ERANSKINA
UKO EGINDAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza euro
PRE-2020EH/0025	Fundación Acción Contra el Hambre	Larrialdi-erantzuna krisi konplexu nagusiak eta COVID-19 pandemiak eragiten dieten Venezuelako herritar zaurgarrienei	Venezuela	51	121.415,45

2020ko abenduaren 28a, astelehena

II. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
PRE-2020EH/0030	Fundación Oxfam Intermón	Emakume seguruak eta babestuak gatazka armatuaren, migrazio-krisiaren eta COVID-19 pandemiaren testuinguruan, Kolonbiako Araucan	Kolonia	59	121.415,45

2020ko abenduaren 28a, astelehena

III. ERANSKINA

ESKABIDE EZ ONARTUAK DIRU-FUNTSAK AGORTZEAGATIK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea
PRE-2020EH/0031	Fundación Itaka-Escolapios Itaka. Eskolapioak Fundazioa	Kamerungo Bamendako Pías ikastetxeetan 797 neska eta 737 eskola-haurren eta haien familien erresilientzia-ahalmena babesten	Kamerun
PRE-2020EH/0032	Fundación Ayuda en Acción	Babesa eta laguntza humanitarioa Malin, krisiari, gatazka armatuari eta COVID-19ari erantzuteko	Mali

IV. ERANSKINA
UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoa
PRE-2020EH/0026	Asociación Emigrad@s Sin Fronteras	Laguntza humanitarioa (elikagaiak, osasun-arreta eta babesteko materiala) COVID-19az kutsatzeko arrisku handia duten familia zaurgarri, desplazatu eta errefuxiatuentzat eta etxeko buru diren amenizat, Chocó eskualdean (Kolonbia), Cajamarca probintzian (Peru), Ciudad Parcelles Assainies hirian (Senegal) eta Qasrok udalerrian (Irak)	Kolonbia, Peru, Senegal, Irak	Proiektua baztertua geratzen da, ekintza humanitarioko esku-hartzeetako laguntzak arautzen dituen 90/2019 Dekretuaren 16.1. artikuluan sartzen delako, 50 puntu ez eskuratzeagatik.
PRE-2020EH/0027	Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioa	Laguntza humanitarioa, COVID-19ren eraginezko genero-bortizkeria prebenitzeko, Cordillera del Bálsamoko 4 udalerrian	El Salvador	Proiektua baztertua geratzen da, ekintza humanitarioko esku-hartzeetako laguntzak arautzen dituen 90/2019 Dekretuaren 16.1. artikuluan sartzen delako, Garapenerako Lankidetzaren Gida Planean eta Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.
PRE-2020EH/0028	Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional	Elikagai- eta osasun-laguntza, COVID-19ren eragina arintzeko, Mauritaniako Gorgol eskualdean	Mauritania	Proiektua baztertua geratzen da, ekintza humanitarioko esku-hartzeetako laguntzak arautzen dituen 90/2019 Dekretuaren 16.1. artikuluan sartzen delako, Garapenerako Lankidetzaren Gida Planean eta Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.
PRE-2020EH/0029	Fundación Calala-Fondo de mujeres	Emakumeen eskubideen defentsa Nikaraguan, COVID-19 pandemian	Nikaragua	Proiektua baztertua geratzen da, ekintza humanitarioko esku-hartzeetako laguntzak arautzen dituen 90/2019 Dekretuaren 16.1. artikuluan sartzen delako, Garapenerako Lankidetzaren Gida Planean eta Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.